

3- FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure aliantza printzipalak bi motatakoak izango dira.

Lehendabiziko aliantza, El Corte Inglés bidai agentzia izango da. Hauek, bidaia aurrera eramateko errestasun handiak emango dizkigute, herrialdeen arteko garraioa antolatzen eta egonaldiak erreserbatzen lagunduko gaituzte.

Beste aliantza bat, Espainiar estatu mailan aitzindariak izan diren eta antzeko jarduerak probintzia mailan egiten dituzten enpresekin izango da. Hauek ez dira lehiakide zuzenak, kontuan izanik gure esperientzia Europatik dela.

Gure jakinduria falta izanik sektore honetan, beraiek lagundu ahal izango gaituzte gure negozioaren lehenengo pausuak aurrera eramaten.

Gainera, herrialde bakoitzeko erakunde publikoekin kontaktuan jarri gara, bertako legeak errespetatzeko, baita, leku bakoitzean zein leku izan daitezkeen egokiagoak horrelako ekintzak aurrera eramateko.

